Iraun ala iraungi

BEA SALABERRI
IRAKASLEA

PAULA ESTÉVEZ

Etxeko garbigailua hautsi eta konponarazten saiatu ginelarik, beste baten erostea hobe genuela erran zigun konpontzaileak. Merkeago genukeela, ez, aise merkeago genukeela berriaren erostea. Lehen batean ez bazen begi bistakoa, argudiatu zitzaigun, baietz, epe ertainean hala gertatuko zela, hasieran euro batzuk gehiagoren –hain gutxi gehiagoren– sakrifizioa egin eta bakean genuela hainbat hilabetez –ez zituen urteak aipatu–; beraz, berehalakoan agian ez, baina hilabete zenbaitzuetako epean errentagarriagoa zen, makina ez baitzen, maluroski, aski berria konponerraza izateko. Ordukotz, labela D mailara jaitsia zitzaion-eta.

Kontsumo gizarte honen motorrak segitzen du izaten ekoitzi-erosi-botaerosi-ekoitzi eta abar luze bat, maiz arras hondatuak ez diren gauzak kondenatzen eta dirua eskuz aldarazten dituena. Gauza iraunkorrak, patentatuak izanik ere, ez zaizkigu erraz etxera heltzen. Dena da aldatzea eta berritzea. Tresnekin, jantziekin, jostailuekin, kulturarekin. Pentsatu-sortu-saldu-birpentsatu. 2020tik goiti besterik zabaldu bazen ere eredu gisa, eta hastapen batean kontsumo frenesia gelditzeko ahaleginak planteatu bagenituen, laster harrapatu gintuen lehengo pleguak. Eta deus gertatu eta gertatzen ez balitz bezala, berriz ere kreditu eta auto publizitateek itotzen gaituzte.

Ondoko astean, espero ez nuen sorpresa ukan nuen, bizkitartean. Haurrak handitu eta etxea betea dugu sekulan gehiago erabiliko ez ditugun puskez. Garajean metatuak ikusten direnean, hobe ez hastea karbono aztarnaren kalkulatzen. Horra non, jada haurrak ez diren horiek, *Legoak*, jokoak, jantziak, zapatak, altzari txikiak, bildumak... bildu eta lerrokatu zituzten eta argazkitan hartu. Ondotik kontuak ireki arazi zizkiguten plataforma ahalik eta gehienetan, prezioak aztertu, deskriptiboak idatzi eta negoziazio estrategiak gogoetatu zituzten. Betiko biziari ekin zioten gero, beren burua doi bat ikusiz enpresa buru gisa, baina tira... Hasieran eszeptikoa nintzen, aitortzen dut. Baina egun gutxi batzuk barne dena saldu zuten eta despeditu paketetan sarturik. Objektu horiek denek, horien artean anitz kosta zutenak barne, dagoeneko bizi bat izana zuten. Baina bakoitzak bere hartzailea kausitu zuen, bakoitzak norbait seduzitu eta konbentzitu zuen.

Bigarren eskuko objektuen merkatuaren osasun maila. Azken bi urteetan, bigarren eskuko produktuak saltzen dituzten saltegi eta marken kopurua handitu da, baiki. Erosleak ere zentzu horretara doaz. Azpimarratzen dute belaunaldi gazteen eroste ohitura horretara doala lehenik eta berria ezinbestean baizik ez dutela erosten. Omen, batzuek ber-salmentaren kalkulua egiten dutela, potentzialik bigarren bati uzteko, zerbait berria erosten dutenean. Gure aldetik erabiliko ez ditugun gauzek iraunen dute beste batzuen etxe eta eskuetan. Eta egin den diru sarrera erlatiboarekin, haurrek bigarren eskuko opariak egin dizkiote haien buruei.

Iraungi eta *iraun* aditzen artean, bi hizkitako ezberdintasuna dugu. Hiztegian, bata bestearen ondotik datoz. Sarreren artean bata da *iraun*, lehena, eta ondokoa *iraungi*. Bizkitartean, bigarren horren ondotik datorrena *iraunkor* da, bitxiki. Hiztegiko orrialde berean dago, bestalde, pixka bat gorago, *irauli* aditza ere bai. Aldiz, *irauli* aipatzeko, horretara heltzeko, hasteko, tartea dugu eta orrialde hau, motzegia. Anartean, gogoan atxiki: iraunkorrena dena, betiere, ekoizten eta erosten ez dena da. ●